

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Hainbat lanpostutarako lan poltsak eratzea

Amurrioko Udalak hautaketa prozesua deitu du lan poltsak eratzeko, hain zuzen ere, lanpostu hauetako langileen aldi baterako beharrak betetzeko: obra eta zerbitzuen peoi espezialistak, parke eta lorategietako peoi espezialistak, atezainak, igeltserotzako lehen mailako ofizialak eta lorezaintzako lehen mailako ofizialak.

Hautaprobetan parte hartu nahi duten pertsonak eskaeran adierazi beharko dute. Horren eredu normalizatua Amurrioko udaletxean dauden udal informazio bulegoetan (Juan Urrutia plaza, zk.g.) banatuko da, eta eskaerak hantxe bertan aurkeztuko dira (ordutegia: 09: 00 - 14: 00), jasotzailea alkate-lehendakaria dela jarrita. Horretarako, 10 egun izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera. Inprimakia eta oinarriak udalaren web orritik (www.amurrio.org) deskargatu ahal izango dira.

Amurrio, 2014ko azaroaren 21a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA